

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

AIZU

**IBERDROLA-KONEKTA BTO.K
LANGILEAK ZAPALTZEN DITUZTE**



ELAk Gueñesko Konekta BTO enpresan duen Atal Sindikalak azaldu nahi die herritarrei zenbat nahigabe eta borroka pairatu behar izan duten gure plantillako emakume langileek azken bi urteotan; Iberdrolak, kostuak merkatzeko eta emaitza-kontua hobetzeko, bezeroei erantzuteko zerbitzuaren azpikontrata aldatu zuenetik.

Bi urtez borrokan, etengabeko mobilizazioak, elkarretaratzeak, manifestazioak, greba-egunak, salaketak —Lan Ikuskaritzan eta epaitegietan—; hori guztia gure lanpostuen alde agertearren, eta urte askotan lorturiko eskubideak kentzen ez uztearren.

Oso gogorra izan da azken bi urteotan gertaturikoa, batez ere gure lankide asko kalera bidaltzea ikustea, dagozkigun eskubideak erreklamatzegatik. Besteak beste, subrogazio-eskubidea, Eusko Jaurlaritzak EEE onartzeaz ukatu ziguna, baina EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak onartu diguna, enpresen segida frogatutzat jo baita.

Orain Konekta BTO enpresak, Iberdrolaren oniritziak eta lan-erreformak ematen dion aukeraz baliaturik, 11 lankide gehiago kaleratu ditu, eta 7 Bartzelonara lekualdatu —guretzat kaleratzearen pareko dena—.

Langileok zutik jarraitzen dugu, egoera honi aurre eginez, eta Konekta BTOren politikari aurka eginez. Iberdrolak eman nahi duen irudia enpresa bikainarena da, jarraitu beharreko eredia, modernitatearen eta jasangarritasunaren adibidea... baina itxurakeria hutsa da; ametsetako irudi horren ostean langile askok egiten dute lan azpikontratetan, erabateko prekarietatean, Iberdrolak bere etekinak are gehiago ugaltu ditzan.

Eskualde honetako biztanleok ederto dakigu zer den langabezian egotea, eta zenbat kostatzen duen lanpostuaren eta lan-baldintzen alde egitea; hori dela-eta, sostengua eta elkartasuna eskatzen dizkizugu gure borroka honetan, Konekta BTO eta Iberdrolaren behartzeko eta gure lanpostuak zaintzeko.

JO TA KE IRABAZI ARTE